

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Zuzentaraua:	2008/19/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2008ko martxoaren 11koa, bizi-aseguruari buruzko 2002/83/EE zuzentaraua aldatzen duena, Batzordeari esleituriko betearazpen-eskumenei dagokienez
--------------	---

Ondoko itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiria du.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2008/19/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 11 de marzo de 2008, por la que se modifica la Directiva 2002/83/CE sobre el seguro de vida, por lo que se refiere a las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 76/44, 2008/03/19koa*)»
2008/19/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 76/44, 2008/03/19koa)

2008/19/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2008ko martxoaren 11koa,

bizi-aseguruari buruzko 2002/83/EE zuzentaraua aldatzen duena, Batzordeari esleituriko betearazpen-eskumenei dagokienez

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatu eta, bereziki, haren 47. artikulua eta 55. artikulua aztertu dituzte,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen Irizpena¹ aztertu dute,

Tratatuaren² 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki,

Honako hauek hartu dira kontuan:

- (1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/83/EE Zuzentaruaren³ arabera, zenbait neurri Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiari⁴ jarraiki onartu behar dira. Batzordeari esleituriko betearazpen-eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen ditu Erabaki horrek.
- (2) 1999/468/EE Erabakia 2006/512/EE Erabakiak aldatu zuen. Horren bidez, kontrolpeko arautze-prozedura finkatu zen, irispide orokorreko neurriak hartzeko, Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera onetsitako oinarritzko egintzen elementu ez-funtsezkoak aldatzeko. Badago elementu haiek kendu edo egintza funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin osatzea ere.

(3) Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006/512/EE Erabakiaren gainean kaleratutako Adierazpenari⁵ jarraiki, kontrolpeko arautze-prozedura Tratatuaren 251. artikuluko prozeduraren arabera hartutako indarreko egintzei aplikatu ahal izateko, egintzok egokitu egin behar dira, prozedura aplikagarriren bidez.

(4) Batzordeari eskumenak ematea komeni da, 2002/83/EE Zuzentaruaren betearazteko beharrezko neurriak har ditzan. Aseguruen sektorean edo finantza-merkatuetan gertatu diren aldaketa teknikoak aintzat hartzea eta Zuzentaruaren era uniformean aplikatzen dela bermatzea dira asmoak. Hauek dira neurriaren helburuak: kaudimen-marjina erabilgarriaren elementuak egokitzea, egitura juridikoen zerrenda handitzea, aseguru moten zerrenda aldatzea edo zerrendan erabilitako terminologia egokitzea, kaudimen-marjinaren elementuak argitu edo moldatzea, hornidura teknikoak estaltzeko onartutako aktiboen zerrenda eta inbertsioak barreiatzeko arauak aldatzea, kongruentzia-arauetarako malgutasunak aldatzea, definizioak argitzea eta interes-tasei aplikatzeko maximoen finkapen-arauetan beharrezko egokitzapen teknikoak egitea. Irispide orokorreko neurriak direnez eta 2002/83/EE zuzentaruaren funtsezkoak ez diren elementuak aldatzea dutenez xede, 1999/468/EE zuzentaruaren 5 bis artikuluan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

(5) Hortaz, bidezkoa da 2002/83/EE Zuzentaruaren aldatzea.

(6) Zuzentaruaren honen bidez 2002/83/EE Zuzentaruaren egin diren aldaketak teknikoak direnez eta Komitearen prozedurari bakarrik eragiten diotenez, ez dago zertan estatu kideek bere egin. Horrela, bada, ez dago ondorio horietarako xedapenik ezarri beharrik.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Aldaketak

2002/83/EE Zuzentaruaren aldaketa hauek egin dira:

⁵ C 255 EO, 2006-10-21ekoa, 1. or.

¹ C 161 EO, 2007-07-13koa, 45. or.

² Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko azaroaren 14koa — oraindik ez da Egunkari Ofizialean argitaratu — eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko martxoaren 3koa.

³ L 345 EO, 2002-12-19koa, 1. or. Zuzentaru hori 2007/44/EE Zuzentaruak —L 247 EO, 2007-09-21ekoa, 1. or.— aldatu zuen azkenekoz.

⁴ L 184 EO, 1999-07-17koa, 23. or. Erabaki hori 2006/512/EE Erabakiak —L 200 EO, 2006-07-22koa, 11. or.— aldatu zuen.

*2. artikulua***Indarrean sartzea**

Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean zuzentarau hau.

*3. artikulua***Hartzaileak**

- 1) Hirurogeita laugarren artikulua sarrerako esaldia honako honek ordezkatu du:

«Egokitzapen tekniko hauek, zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzea dutenak xede, 65. artikulua 2. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

- 2) Hirurogeita bosgarren artikulua honela aldatu da:

- a) Honako testu hau jarri da 2. paragrafoaren ordezt:

«2. Honako paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5. *bis* artikuluko 1. paragrafotik 4.era bitartekoak eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, eta 8. artikuluan xedaturikoa bete beharko da».

- b) Hirugarren paragrafoa ezabatu egin da.

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon emana, 2008ko martxoaren 11n.

Europako Parlamentuaren izenean
Presidentea
H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean
Presidentea
J. LENARČIČ